



NOIZ

Daniel Landart - en teatroa

Azken urte hautan Danielek hartu duen bideari erantzuten dion teatroa, hain zuzen.

Danielek Ipar Euskal Herriaz iratzartu nahi du jendea. Lehen, BAI ALA EZ ihazko haretan, Euskal Herri osoari dagokion problema bat argitaratu emanaz. Eta orain, NOIZ honekin, Ipar aldeari propio zaion arazo bat salatuz: herriz urrutzea eta Parisera, lanaren bila, doan gaztearen problema eta problemak!

Teatro-ekintza (lurrez urrun baina, frantses batentzat, bihotzez hurbiltasunik ilugarritenean den) Paris horretan asmatua da. Pertsonajak etxe aberats batetik ez dira ateratzen. Baina etxe horretan ba da aski mundu, eta desdirtza gehiago! Etxeko nagusiek gaurko eta betiko burges txiki eta handiaren jokabidea irudikatzen dute, beren arteko egin-egiharhartzearekin eta zerbitzariarekin mepretxuararekin. Errespetuaren izenean menpekaria onar-arazi eta obedienezaren izenean personatzen sunaren "jakematea" egitea, fenomenatu bat beraren bi aurpegi besterik ez da. Hau da agian teatro honetan markatuena.

Giro honetantxe ezarri nahi izan du Danielek Parisera, zeru-ustean eta Kälbario-bidean, doan euskal neskaren bizitza. Etxe aberats sin-

boliku (eta Parisera ino joan gabe aragizko bilakatzeko den) horretan ba dira bi neska, bi euskaldun. Pariseko bizitzari neurria hartu diena bat, menpekieriaz jabetzen dena baina, sufrituaren, bizitzaren mina libertimenduaren ardotan itozten saiatzen dena. Bestea, uri handira ezin moldatua, jatorriaz maitemindua, lege gabeko zerbitzari bizitza hori ezin jasanez erretolatzen dena.

Maddalen duzu neska hau. Eta Maddalenek garraxi eginen du, garraxi bere Herriari, garraxi gizar-teari, garraxi kontzientziari: NOIZ! Ez da galdera, hasarrea da. Noiz aldaketa, eta noizarte honela? Noizarte Paristarren "portugesak", eta noiz bilakatzeko ote geure buruaren jabe?

Zer egiten du, ordea, Maddalenek? Maddalenek problemaz jabetuko da, eta hasarrituko, eta... erretolatuko! Maddalenek erretolatzen teatroa eskienin digu Danielek orainoan. Hemen da bere indarra, eta bere ahulezia. Maddalen ez da iraultzaile. A. Camus-en gizon erretolatzairen teatroa duzu hau ("Je me révolte, donc nous sommes"). Eta erretolatzaile batetik erreboluzioa sortu baledi ere, ez da lege, ez da beti hola. Erretolatzen eta iraultzaren arteko aldea espaita kanitatzeakoa, kalitateakoa baizik (eta

gehiegitan elgar nahasten direlako, etorkizunari buruz beharko du gu honetan sakondu).

Maddalen ez da iraultza mailara igo. Iraultzara baino erexago letratatzen da desesperantzara. Funtsan, ez du ez munduan, ez adiskidetasunean, ez etorkizunean sinesten. Horegatik makurtzen du bere burua, garraxi egin ondoren, etxekanderearen esanetara. Eta hor bukatzen da obra.

Kontzientzi-araztearen mailan ezartzen da NOIZ teatroa. Eta lotu du, ez da dudarik. Maddalenek garaxia espaita kontzientzi-hartzearen seinale besterik. Eta segur nago Maddalena kontzientzi-hartzeak, urrengo Danielen teatroan fruitu zoria emanen dituela. Izan ere, Maddalenek kontzientzi-hartzea plazakoa da ez bulego itxikoa; ez marfileko dorrekoa, errealtatearen errealitatekoa baino. Maddalenek odolean daramakian min hori burura pasatu beharko du Danielek urrengo teatroan, beste batzuen burutik odolera igaro-arazi behar den bezala.

Txaloa baita artistaren janaria ("promoteio mixerable" hori ere), ene txalorik beronenak eskeintzen diakit egileari, hartu eta hartuko dituen beste guzietan baten.

Joan Mari Torrealday

KAFE-TEATROAK

"Antzes idazle berri bahaiz eta ustez daukaken talentua erakutsi nahi baduk, kafe-teatroko asma eta egitziak... New-York kedo La Mama taldeko zuzendari den Ellen Steward ek erran zuen 1955. inguru, mogimendu, hau hasi eta gero.

La Mama izenakin talde aunitz dago gaurko egunean, toki aunitzetan zabaldurik. Orain lau urte inguru hauek asmatu eta agertu zuten, gaur hain ezagun eta zabalduak diren «Tompaine» eta batezere «Hair», nahiz bi hauek aldeaz komertzializatuak izan eta aldakutz haundixamarrekin agertu gure aintzinean.

Ellen Steward jostun beltz bat zen eta bere anaia eta Paul Foster lagunakin hasi izan zen, antzerkian era berri hau lantzen eta mogimendu honi Off off Broadway deitzen zioten.

Lehenbizikoz, jende aunitz joaten ez zen kafe batetan hasi ziren, baina Kafe-hura ahitu egin zen eta etsi zuten. Italiano batena zen eta Cafe-Cino omen zuten izena.

Ondoko saikerak hamabortz lagun inguru sartzen zen tokitan izan zen eta ez beti, toki berdinetan. Eta nola legalizatu gabeak ziren tokiak eta egileak, han-emenka ibiltzen omen ziren, noizbehinka multa batzuk ordainduaz.

Indartzen pixka bat hasi zirenean, toki haundiagotan egin beharrean, gero eta toki gehiagotan egiten zuten, taldea erdituaz. Eta zenbat eta jende gehiagok lan egin, orduan eta toki gehiagotan egiten zuten, hiruz eta lau banakaten bait ziren. Ezaguturazten hasi ziren denbora berean, berehala La Mama tokitik pasatu behar izan zuten, Bread and Puppet, San Francisco, Mime troupe eta Living Theatre'n gisakoa den Open theatre.

Azkeneko hauek ez dire gehienetan kafe teatrotan agertzen, ezta ere gaineko antzokitan, nunahi, edo-zein herri edo huriiko bazter edo plaza txikitant batzik, hots; eztaukate toki berezirik. Beharra nun, han, dagoz, erratan duten bezela.

Zagitz

JULIO URKIXOREN EUNURTEBURUA

Eun urte bete dira, Urkixo jauna jaiotzat; eta joan du Urrillean amar urte, il zanetik. Gertari ori oiñarri artuta, euskaltzaleak susperturik dabiliz. Gizon arek, izan ere, merezi zuan gure oroitza lu-zatzea. Etzan makala izan beraren jarduna eskal-arloan.

—oOo—

Urkixo ta Ibarra-tar Julio jauna, Euskaltzaindiko leenengo laguneta-koa izan zan, eta beraren izena «Revista Internacional de Estudios Vascos» aldizkariak zabaldu zuan mundu guzira.


Oraintxe eun urte Deustun jaiot zala (1871 go Apirilaren 3-an). Urrengo urtean sartuko zan don Karlos, bigarren karlista-gerratearen esiera ematera Nafarroan.

Ta nun asiko ta Durangoan jaiki zaizkigu jaun aren oroitza bide artuta, euskal-jai batzuek antolatzeraz. Bizkaiko uri ontan aipatua izan zan 1895 garren urtean leenbiziko aldiz, ain zuzen ere, Euskaltzaindia. Ala ere, 1918 garren urterarter, Oñatiako Eusko Ikaskuntzaren leenengo Batzar Nagusian mamitu zan asmo ura. Azkue, Kanpion, Elizalde, Agirre ta beste lagun batzuk izan ziran, Julioaren lagunak egiteko aretan.

Ogei ta amasei urte zituan don Julio bere aldizkari «Revista Internacional de Estudios Vascos» argitaltzen asi zanean. Lan zailla, mantuxetan zeuden ikasaldiak maila goi artara jasotzeko. Baina Urkixoren eraginak mundu guzitik bildu zituan euskal-gaietan jakintsu ziranak; eta aldizkari aren orrietan, beren jakituria ixuri zuten urterik urte. Andik sortu zitzaion gure izkuntzari, maila goineko izena.

Mutila zan, gero, don Julio, euskal-liburu zaarrik liburutegi ta den-darik, baztarruentean artizteko «Guero». «Etxeverri'ren Itzulia», «Artzadun'en Dotrina», ta abar eta abar... Aren eskuetara etorri ziran banaka, gure euskera zaararren pil-lareak jasoz onela.

Urkixoren liburutegia, Euskal Erri-ko onenetakoa gertatu zan aren aaleginei esker; eta gaur ari esker-kerak, Gipuzkoako Diputazioan de-



gu inñun ez bezelako: euskal-liburu-aren altxorra.

Yon Bilbaok, Urkixo jaunaren omenez atera zan liburuaren (1949 garren urtean), don Julioaren ekintza azaltzen digu. Ortarako, ogei orrialde bear izan zituan. Ezta gutxiagorako: Gaur, Donostiako Artzai Onaren elizan, lur-azpiko kriptan datza gizon, aundi aren gorputza.

Bera izan zan askorentzat argi bizia euskal-gaietan; arengana joaten bait-ziran euskera lantzen ari ziranak.

Irurogei ta bederatzita urte iraun zuan aren biziak; aietatik irurogei bat urte, euskal-sailean jo ta ke eraman zituan gure gizonak. Ba da zerbaite gure erri, ajiolagabe onen barruan, onela argi egiteko. Durango ezin zezakean garai oñtan egiteko ederragorik asmatu. Euskal-dunok esnarazteko, eredu bikaina don Julio: Aren erdia egingo bagendu; besterik litzake gure euskera ta gure erria.

Etxaniz'tar, Nemesio

ETXERIKO-ANBER: IRANEN ARABAN SEBES
AZKORREN ONKOKO JABOI ONKORREN:

JABON LAGARTO

Zere garbitzeta mezikatu egiten ba'ozan

ATOMIZADO LAGARTO — jabona oraindik beti
Eskur ba'ozatik, LAGARTO — jabona bear dauz areal

JABON LAGARTO, garbitzeta mezikatu jaboi bakarra
Etxeko-azkorrerik mezikatu mezikatu egiten.

JABON LAGARTO!

o y a l s . a .

Oyal eta eforru almazena

Paregabekoak

Bikañenak

GARIBAY, 4 - TELF. 14304

DONOSTIA

Bodegón

Alejandro

Alejandro'ren Bodega dago Donosti'ko txoko baten, bein ezagutzen dutenak zinto takite aruntz joaten. Nai dan aukera ba-dezu beti jaten bezela edaten, oberik ezin arki diteke merke ta ondo ematen.
Fermin Calbetón, 4

DONOSTIA

Kontu emen!

Euki gogoan!

Adiskide ta etxekojaunok!

Zuen enmazteentzako esku-erakutsirik onena. Zuen sukaldarako apaingarri

Eltze azkarra. Asadora-Freidora RADAR. Erre ta prejitzeiko aukerakoa SUPERCACEROLA A PRESION «RADAR»
Juegos Espátulas y juego Cubierto «RADAR»
LANTEGIA - INDUSTRIAS RADAR ESKORIATZA (Gipuzkoa)

ERLOJU TA BITXITEGIA

Eduardo Chapeitía

Vergara, 11-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA